

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

Batzarraren AKTA.

2016ko ekainaren 8a – 17:30 h

BERTARATUAK

Juan María Aburto (Bilboko alkatea, presidentea)
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia, presidente ordea)
Nekane Alonso (Kulturako zinegotzia)
Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasuneko zinegotzia)
Ainara Aretxabaleta (EAJ-PNV udal taldea)
Alba Fatuarte (EH-Bildu Udal taldea)
Jesús Sanz Salamanca (PP Udal taldea)
Inés Ibáñez de Maeztu (PSE-PSOE Udal taldea)
Amaia Arenal (Udalberri Udal taldea)
Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)
Jon Simón Gartzia (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila)
Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundia)
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiak)
Jokin Gorozika (Labayru Fundazioa)
Libe Agirre (kazetaria)
Xabier Monasterio (kultur eragilea)

EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE

Genar Andrinua (Athletic Club)
Olatz Elgea (Bilbao Dendak)

EZ BERTARATUAK

Xabier Otxandiano (Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia)
Alexander Arauzo (GOAZEN BILBAO Udal taldea)
Andres Urrutia Badiola (Euskaltzaindia)

GAI-ZERRENDA

1.-AURREKO BATZARRAREN AKTA ONETSI.

Batzordeko kideek **onartu dute aho batez** 2016ko otsailaren 3an egindako batzarrari dagokion akta.

2.-BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIAREN ZIRIBORROAREN INGURUKO EKARPENAK.

Udalak zuzenean ekarpenik jaso ez badu ere, kide batzuek bileran bertan egin dituzte:

- Kontsulta eta informaziorako organoa ez ezik, erabakietan loteslea ere izatea.
- **Ordezkaritza zabalagoa** izatea (hedabideak, auzoetako elkarteak, euskara-elkarteak).
- Soziolinguista adituen presentzia zuzena egotea.
- **Hiru azpibatzerdeen proposamena** egin da, Euskara eta Hezkuntza Sailaren izenean.
 - 1) **Euskaltegien lan-taldea**, euskaltegien proposamenak entzun eta Batzorde honetara ekartzeko.
 - 2) **Hedabideen lan-taldea**, Udaletik hartu dezaketen bultzada aztertu eta elkarlanean sakontzeko.
 - 3) **Euskarazko produktuen kontsumoa handitzeko lan-taldea**, merkataritza arlokoa, salgai dauden euskal produktuek ikusgarritasun handiagoa izateko.
- Proposatuta da araudiaren 10. atalean gutxienezko baldintza bat sartzea, **osaketa ez geratzeko hain zabalik**.
- Kideek erabaki dute lan-taldearen osaketaz udako oporren osteko batzarrean hitz egitea eta ekarpenak kontuan hartzea.
- Datorren batzarrerako, kideen ekarpenak batu, sakondu eta araudiaren onarpena ipiniko da puntu honen izenburuan. **Zerbait gehitu nahi izanez gero, kideek bidaltzea dutela eta datorren batzarrean araudiaren onarpena jarriko da mahai gainean**, bozketarako.

3.-ESEPEN (EUSKARA SUSPERTZEKO EKINTZA PLANA) BARRUAN UDALAK DITUEN EKIMEN ETA EGITASMOEN AZALPENA.

Bilboko Udaleko euskararen bulegoak 2015ean **egindako ekimenak eta egitasmoak azaldu dira**, banan-banan. Azaldu ez den bakarra izan da lehen programa, Udaleko Euskararen Erabilera Plana. Hain puntu garrantzitsu eta zabala denez, hurrengo baterako utziko da, batzar batean modu monografikoan jarduteko modukoa delako.

Azalpenaren ostean **hainbat ideia eta ekarpen** egin dira:

- Datorren urteko aurrekontuan euskara normalizatzeko **aurrekontua handitzeko asmoa eta konpromisoa du Udalak.**
- Denon **ideia berriak** eta osagarriak mahai gainean jartzera gonbidatzen da, kideen artean azertu ostean aurrera atera ahal izateko.
- Udalak **baliabide nahikoak** bermatu behar dizkio euskarari.
- ESEP ekintza-metaketa bat baino gehiago da, **plan oso bat** da. Badira neurriak eta ekimenak, baina beti ere **estrategia baten baitan kokaturik**, eta **batzordeari dagokio horretaz ere eztabaidatzea**, hizkuntza-politikaren estrategiaz, helburu nagusiez, egoeraz eta norabideaz.
- Ekintzotan **estankamendua** saihestu behar da eta egoera berrietara egokitu behar dira. Aldi berean, urte askotako ekintza onak mantendu behar dira.
- Ekimen batzuk udal askoren arteko elkarlanaren ondorio dira eta aldaketak bulego askotatik pasa behar direnez, **zailagoak dira operatibitate aldetik**; bestetik, **urtero hartzaile desberdinei** zuzentzen zaie mezua. Dena den, ekimenetan **balantzea egiten** da urtero eta horren ondorioz **aldaketak eta hobekuntzak txertatzen** dira, **asebetetze maila neurtzen** da eta ulertu behar da herritarren eskaria eta oniritzia dutela.
- **Motibazioa** ere landu behar da: motibazioa ez dator ekintza puntaletatik soilik, euskararen motibaziorik onena dago zeuk euskara daukazunean zerbait desberdina, zerbait interesgarria, zerbait positiboa, zerbait erakargarria egiteko balio dizunean. Horrek ematen dio benetako plusa euskarari. Beraz, izan gaitezen originalak, errebisa ditzagun egin ditugun gauzak, egin ditzagun berriak eta ez dezagun ahaztu erabilera dela hemen jokoan dagoena. Horretaz gain,

gauza batzuk egin beharko dira noizean behin eta beste batzuk urtean zehar ondo planifikatu, adin tarte pare bati egokitu eta **iraunkortasunez garatu**.

- Gaur dugun eskaintzak, hobeto lotuta, eragin handiagoa eduki dezake.
- 2014-2015 ikasturtean Siadeco enpresari eskatu zitzaion **euskaltegien errealitatearen azterketa sakona** egiteko. Batzordekide guztiak gonbidatuta daude dokumentu horren inguruko hausnarketa partekatua egitera.

4.-EUSKARAREN GAINKO DISKURTSO PARTEKATUTAKO ZORU KOMUNAREN OINARRIAK (EGOD).

Azaldu da nork egin zuen txostena, helburua zein den, eta zeintzuk diren ideia nagusiak. Liburuxka banatu zaie Euskararen Aholku Batzorde kideei.

Bilbon ere txostenaren aurkezpena egitea azter daitekeela esan dute kideek, beharrezkoa eta interesgarria delako.

Bilbon, 2016ko ekainaren 8an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA
Jose Joakin Gallastegi Villanueva